



Bizkaia: 615.666.155 asviamie@gmail.com
Gipuzkoa: 691.83.34.56 asviamie Gipuzkoa@yahoo.es
Araba: 655.70.08.82 asviamie@gmail.com

AMIANTOAREN BIKTIMENTZAKO KONPENTSAZIO-FUNTSA SORTZEKO LEGEA ONETSI DUTE GAUR SENATUKO OSOKO BILKURAN

Gaur Senatuan Legea onetsi eta ondorengo egunetan Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, bermatu dezakegu Amiantoaren Biktimentzako Konpentsazio Funtsa martxan jarriko dela. Horrela amaitu da aldi luze bat, 2013an Eusko Legebiltzarrak helburu horrekin Lan Batzorde bat sortu zuenean hasi zena, eta ondoren lege-proiektua Diputatuen Kongresuan, hiru aldiz ere, erregistratu arazi duena.

Burututako lanaren balantzea eginez, esan nahi dugu pertsona, erakunde eta organismo askori eskertu behar diegula egin duten ahalegina. Lehenik eta behin, Eusko Legebiltzarreko Batzordearen lanketan parte hartu zuten erakundeek, langile-sindikatuak, enpresaburu-sindikatuak, mediku-elkargoak eta arlo horretan adituak diren pertsona guztiak ordezkatzen duten euskal gizartea azpimarratuko genuke. Ahalegin zintzo horri guztiari esker, lege-proiektuak Legebiltzar-talde guztien aho bateko babesa jaso zuen.

Lege-proiektua Diputatuen Kongresuan erregistratu eta Kongresuaren Osoko Bilkuran aintzat hartu ondoren, esan behar dugu sindikatuen, parlamentu autonomikoen eta Kongresuko parlamentu-taldeen babesa ere izan dugula.

Konpentsazio Funtzaren Legearen bidez, justizia egin nahi da azken hamarkadetan amiantoak gaixotu eta hilarazitako milaka pertsonekin, ordainik jaso ez duten pertsonekin. Saihestu zitezkeen heriotzak eta sufrikarioak izan dira, hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera gobernuek amiantoa erabiltzea debekatu izan balute, garai hartan jada ezagutzen baitziren haren ondorioak.

Legea onetsi eta datozen egunetan BOen argitaratu ondoren, hura erregelamendu bidez garatzea da hurrengo urratsa. Legea aplikatzeko erregelamendua egiteko lan hori Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioari dagokio. Espero dugu epe laburrean egingo dela, eta Legearen senaren arabera egin ere egingo dela, hau da, biktima guztiari prozedura egokia bermatuko zaiela eskaerak egiterakoan, eta gaur egun bide judizialek lortzen diren zenbatekoekin bat datozen zenbateko ekonomikoak bermatuko direla.

Lorpen handi hori amaitu ondoren, gure hiri eta herrietan ezarrita dagoen amiantoa kentzeko lanetak bizkortasun egokia hartzea geratuko da, ingurumen-biktima gehiago saihesteko.

Madril 2022-9-5